«GERO» ERDERAZ

AZKENENGO «Aranzazu» illerokoak dionez, gaurdaño beintzat euskeraz daukagun literatura-libururik onena, Axular'en liburu sonatua, aurki agertuko omen da. Euskeraz eta erderaz A. Villasante kortaberria'ren eskutik datorkigu.

Barzelona'ko Juan Flors liburugillearen etxeko espaniar espiritu gaietako liburuan sailleko bat izango da. Gure euskaltzaindiari ta Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxari eskerrak agertuko da.

Euskaltzaleentzat berri pozgarri bat degu au, Euskalerritik kanpoa ikusi eraziko bait du gure literaturako edergallu bat. Bijoazkie beraz gure zorionak aitatutako bi gizarte ospetsu begiko oieri, eta batez ere, A. Villasante kortaberriari.

Asko saiatu bear degu oraindik, benetako euskal-literatura edo alerti bat —entsaio, nobela, teatro— gaurgaurkoa (modernoa) sortu arte. Orreraño iritxi ondoren, orduan ikusiko ditugu literaturaz merezi duten liburuak euskeratik beste izkuntzetara aldatuta. Lana beltz egin bearrean gaude beraz.

Ala ere, ortaraño iritxitzeko ez degu presaka ibilli bear. Obe degu, Unamuno batek zionez, oraindik ixillik ibilli, eta ez uskerietan eta berri txurikerietan ibilli, literatura-itxura utsekoak besterik ez direanak sortuko ibilli.

Gizaldi ta gizaldiak zear gere euskal-izakeran ixil-ixillik azi ta bizi izan gera; eta berenez izjario eta zalapartatsu diran errialdekoak esateko gauza zan ezer ez genuelako egon gerala ixillik, uste badute ere.

«Gero»'ren elebiko edo bilingue agerraldi au izan diteke gure euskal literaturaren pausotxo bat; kontuan izanik beti, aurreraka —eta ez atzeraka— ibilli bear degula. Aurreraka, indarketa gogor bat, egin nai degunean, oin bat atzeratu oi degu, gero salto on bat eman al-izateko.

Baita ere Unamuno'k esaten digu, ez gure sasi-jainko kontuetan edo euskal mitolojian ipuin sortokien billa ez ibiltzeko, biarko gure etorkizunean dauzkagula-ta.

Gure literatura aputxo bat jaikitzeko izan dadilla bada «Gero» ren agerraldi au; gaurko egunak eskatzen dutenez. Exular berak bere gariako izaten jakin zuanez, eta ez aspaldiko liburu on bati gozotan begira egoteko bakarrik.

PROTESTANTEAK NAPARROAN

MADRID'EKO. ¿Qué pasa? asterokotik artuta Iruñako' —Pamplona'ko— Arzobispoak jakin du Protestanteak Tafalla'n ermitatxo bat iriki dutela. Ebanjelilari sailleko kristau-protestanteak edo izan bear dute berak.

Naparro'ko katoliko eliztarrak kontuan jartzen ditu Goingotzaiak gertakizun onetzaz, baita gañera Iruña'n bertan banatu dituzten papel eta orrietzaz ere. Sinismenari aldatzeke, zutik eutsi al-izateko deitzen die, uste gabean gauza berriak sortu erazten duten zaletasunari tokirik eman ez deien.

Gaurko legeetan, España barruan, katoliko ez diranak beren erlijioa erabilli dezakete, eta beren elizatxoei eutsi ere bai, ixillik eta toki agirietatik beren siniskaiak zabaltzen ezpadabiltz beintzat, porpaganda agirian egiten alegia. Orregatik noski Tafalla'ko protestante taldetxoari ez diete erri-agintariak eragozpenik jarri.

Oraindik ez daki iñork Protestante bizi-legea nolakoa izango dan emenbiar. Dirudienez orain ari dira Gotzaiak antolatzen. Kontzilioari eta orokar edo ekunmeniko giroari eskerrak, katolikoak beste kristau-taldekoekin dituzten alkarizketak ubaritzen eta adiskideagotzen dijoaz. Pozkarri da au. Baño bakoitzak, bere uste ta iritziei aldatu gabe, zintzo gabe, zintzo eutsiaz. Gauz, beste iñoiz ez bezela katolikoak ondo ezagutu bear dituzte sinismeneko egiak eta eguneroko bizimoduan agertu; eta ez sinismen guztietatik zerbait artuaz sinismen-opil berri bat naierara osatu.

Gure artean, bai protestanteak eta bai sinismen gabeak geitzeko zorian dabiltz, gizarteko zuzengabekeria eta erlijio ez-jakintza geitzen dijoazen neurri berean. Erlijio-ikaskuntzak indartu bearrean gaude, eta baietz ere beren analzkiko zenbait katolikoen zuzengabekeria uxatu bearrean. Au degu biderik egokiena bakarra noski, erlijio-zaletasunari zutik eutsi al-izateko. Gogorrezko alegiñak ia ez dute balio gaur.

Sinismen aundiko erriak batetik, baño erantzukizun eta gizarte zuzentasun gabeko edo koxkorragoak badira bestetik, aldrebeskeri bat dira gaur eta kito.

Ia bada Iruña'ko Gongotzaiak katoliko burutsuei —kristau sail eta Apaizei, bieri— egiten dien dei ori, lanak eratu ta biziteko kemenak geitzen dieten. Katoliko itzak gizartezuzentasun dabillein gizona adirazi bear du, Ebanjelioko erakutsiak zintzo betetzen dituan gizona.

EUSKERAN AIDE BERRIAK

«Bide-giroak» (Ambientes del camino) izenarekin bataiatu du Luix Maria Muxika'k bere lenengo semea. Laxter aterako ditu beste bi liburu. Egillea billera batean ezagutu dut. Kezkatia duzue.

Argitara aurretik batek baño geiagok irakurri omen zuten.

«Es estupendo» apaitu zuen Estrade erdal-literato famatuak, erdal-itzulpena ikusi zuen-geroz. Eta beste euskaltzale batzuek, berriz: «Zoragarria benetan». Aitortu dezadan, egilleak jatorrizko euskerari batere zor eztion itzulpena jarri diola aldamenean, idearen sakontasun ikus garria argiago gelditu dedin.

Aldaketa aundiak astindu dute gure olerkaria. Bere barrenaldeak eztu etxean baretasunik arkitu, etzezakean ur totelez ase itsas ur garratz eta gatzadunen egarria. Zerbait ernegarri nai digu, zerbait bizigarri. Ta kanpora abiatu izan ezpalitz, betiko baserrikerietan ittotzera deitua egongo zen. Beraz, euskalmendiak pasa ta estranjeriar-airetara doa arnas billa, bere barrenaldi kezkati ta berritasun-kilimak eraginda. Euskera biurri ta bizkor baten atzetik doa. Expresioari dei edo mensaje modernua erantsi nai dio. Gañera, Erroma'ko unibersidadeak ikuspide zabal eta unibersalak iriki dizkio.

Entzun detanez, España'n Machado, Dámaso Alonso, Vicente Aleixandre, Azorin, J. R. Jimenez... oso ezagunak zaizkio. Paul Claudel, Bernanos Elouard eta... biziki maite omen ditu. Eta zer esanik ez Aresti, Txillardegi ta saillekoak. Izan ere, ba-dirudi auek danak ezkontide dituela eder-idelojiz, itxuraz beintzat.

Bai. Olatu berrian gaude euskalliteratura itsasoan, astiñaldi atrebitu baten giroan. Joan ziren «Pello Kirten, Maritxu... aida ta esti...» eta gixako letaniak. Ikulluko jantzi merke ta arruntekin ez dugu ezertxore pintatzen iñoren aurrean. Egilleak dion bezela(europear- soñekoz jantzi bear gera. Beste itzetan: «euskera gorbataz dotoretu».

Orra, bada. Ortaraxe dator «Bidegiroak». Eta uste dut, —barka bezaidate zaharrek— bere snobismu pixudun eta xoragarriari esker, ausi dituela marka danak euskal-lirismuan.

—x—x—

Gaurkoz natorren gaiera, poemaren argumentura.

Eztu eman nai izan poesia bakarrik, Teolojiarekin batera «paralelismua» edo antz-senidetasuna sortu du. Izadia —Universo— duzue poetaren kanta-gaia. Obeki esan, izadia izadi bezela ta izadia Kristo'ren Erospenez kutsutua bezela. Kidetasun onen kantari dator. Kosmos edo gauzadia «zer konsagratu» bat deritzaio Kristo'ren odolaz igurtzi ondoren, eta Jauna goraltzen arida «apaizaren» bitartez, ez baida konzientziduna. Eta gizonak egina-razten du «konzientzidun», bataioz «apaiza» delako.

Muxika'k begieman du teoloji onen barrentasuna. Eta teoloji oni, prosa edo itz-lauz irikiaren pentagraman muxika erantsi dio, notak... muxika ixilla, arimaren egoera ixpillutzen duena.

Gorputz-Mistikoaren besoak besarkatzen dute Izadia erredenzioz. Eta arimak paisajearen ederra begiztatzen duenean, orra nola topatzen den espiritu konzientzidunaren kanaletik datorren grazizko iturriarekin. Ba-dago artu-emana paisaje ta arimaren artean, ba-dago komunioa. Ixuriz bezela, alkar-izketa dator sortzen eta erna-berritzen paisaje-arima-jainkoaren (iruko onen) baitan. Eroskundearen edontzia gañezka daukagu ta bertatik edan dezake olerkariak mozkortzeraño. Eta izadiari mingaña erasten dionean, ezta ixilduko Jauna bedeinkatzetik azkenik gabeko salmuetan.

Zuzena iruditzen zait egillearen jokabidea. Lenengo ikusi egiten du ta gero igo goitesunaren alturan, igo... sentidua ematen dionarengana, edota nai baduzu, jetxi teolojiaren sakontasunera. Eta onela, Gorputz-Mistikoaren zañetan materiaren odolak (konzientziz konsagratuta) xuxpertuko gaitu. Etzaigu izango kalterako, ez pekatu-biderako. Teolojiak, zuzenbide onekin, gauza baliosa bezela onartuko du izadia, zerbait «positibu» edo baikor izango da.

ARRITOKIETA

DIZDIRAK

Aundi itxurazko politika

CARLOS SANTAMARIA'K

Egun batzuek direla, Mejiko uriaren plaza nagusian, jendetza baten aurrean De Gaulle lendakaria ikusi degu, baita entzun ere, Prantziko telebisioren bitartez.

De Gaulle gaztelera jatorraz mintza irmo ta izkorraz jardun zitzaien mejikotarrei, bi erriak eskuz esku jo bear dutela ta beste onelako gauza ederrak esanaz. Napoleon irugarrena ta Maximiliano emperadorearen il-itzalak inguruan ibiltzea baditeke, ta pozik gero, beren aspaldiko asmo berak De Gaulle'n mintzaeran berriro arkitzean.

Batzuek eta besteak buruz-buru onetik zer atarramendu aterako duten ez dakigu, mintza eder guzi ori itz utsetan bakarrik gelditzea bai liteke. Dana dala europatar geran aldetik «politique de grandeur» orri buruz zer esanik badegu ere.

De Gaulle'ek guziok dakigun eragospen larriak kendu eskero —Arjelia, OAS ta gañerakoa— Prantziko kanpoko politikari eman dion abiadura arrigarrizkoa da. Bañan guk ikusten deguna da, joku ori oso kaltegarria ditekela Europaren batasunerako.

Emeretzigarren mendean Bonapartetarren politikak gaitz aundiak ekarri zituen. Gañera ezkera orain emeretzigarren mendean, ogei ta bat garrenean sartu zorian baizik. Kondairak ez du iñoiz atzeraka jotzen, ta gaurko egunean askok, bonapartismo berriren bati susmoa artzen dioten aundi itxurazko politika orrek, ez luke batere funtsik izango.

«Politique de grandeur», bai, ederra dezute, jostallu galanta bat antzekoa, prantzetiko aberzalekeria adoratzeko, bañan zertan gelditukо dira, «egi-orduan» ospe ta goraldi guzi oiek? Benetako oñarririk gabeko lanak berealaxe ezeresten dira.

Bestalde, guk nai degun Europa ez da indarbidez eratutakoa, erri guzien anaitasunaren frutua baizik.

Santa Alianza'ko Europak, Napoleon edo Hitler'en Europak, ez ditugu guk eredutzat.

Federalismoa da bidea. De Gaullek berriz beste bideari jo nai dio ta Europaren etorkizuna oso arrisku aundian jarri du.

«Aprés moi le déluge» esatea ta berekiko aintzari bakarrik begiratzea gizon politikoen bekatu aundienetakoa izaten da.

«Gizon indartsuenen betiko arazoa bere egiña iraunarazteko modua asmatzea izaten da» —idazle prantzes batek oraindik-orain esan du.

De Gaulle'n oraingo kanpoko politika zertan gelditukо da? Kondairak itza.

Ale bakarra 2,50 pezta

GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAIÑA, GURIÑA TA ABAR. EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERRI AURRERATU GUZIETAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

GURELESA